

FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Gure proiektua funtzionatzeko eta arrakasta izateko, nahitaezkoa da bazkide edo hornitzaile batzuk edukitzea; horregatik, hainbat enpresa desberdinekin kontaktatuko dugu, Hala nola: Nike, Zalando, Spyro...

Hasteko, beharrezkoa da oinetako fabrikatzaile espezializatuak izatea; hori garrantzitsua da, fabrikazioaren kalitatea eta sendotasuna ezinbestekoak direlako gure zapatilek fama ona lortzeko. Kirol oinetakoetan espezializatutako fabrikatzaile batek, gure estandarrak eta baldintza espezifikoak betetzen dituzten kalitate handiko produktuak ekoizteko behar den esperientzia emango digu, beraz, lagungarria izan daitekeen enpresa baten adibidea Nike da; errendimendu handiko kirol oinetakoetan duen ikuspegiatik, bazkide baliotsua izan daiteke. Kalitatezko oinetako fabrikazioan duen esperientzia eta berrikuntzarekin duen konpromisoa, gure ikuspegi aberatsarekin bat egin dezake.

Bestalde, material berritzaileen hornitzaileak edukitzea oso ideia ona izango litzateke; izan ere, zola trukagarrien berrikuntza funtsezko bereizlea da. Gaur egungo materialak hornitzen dituzten hornitzaileekin lankidetzan aritzeak, gure zapatilen errendimenduan, iraunkortasunean eta erosotasunean hoberenetariokoa izatea bermatuko du. Adibidez, "Vibram" enpresa, zolaberritzaile eta teknologikoki aurreratuenak izateagatik ezaguna den hornitzailea izan daiteke; material iraunkor eta funtzionalak sortzen duen esperientzia aktibo baliotsua izan liteke gure proiektuarentzat.

Beste gauza bat litzateke kirol modaren hainbat diseinatzaile izatea, estetika eta diseinua funtsezko alderdiak direlako edozein merkatuan arrakasta izateko. Diseinatzaile espezializatuarekin lankidetzan aritzeak, gure zapatila funtzionalak izateaz gain, era erakargarriak eta egungo joarekin lerrotatuak izatea bermatuko du. Adibidez, Spyro-rekin lankidetzan aritu gaitzake (Forum Sport-en enpresa propioa dena), Running arloko produktuetan zentratzen zen, kirola egiteko kategoriako desberdinak taldekatzeko eta bere produktuak kirolaren arabera zabaltzeko helburu du. Gainera, gure zapatilei moda eta iraunkortasun elementu bat gehitu liezaieke. Bestetik, gure gaurkotasuna kontuan izango dugu eta gure gizartean dauden tendentziak eta modak jarraituko ditugu pertsona gehiago erakartzeko.

Banatzailak ere beharko ditugu, eta hori oso garrantzitsua da; izan ere, banatzaileekin akordioak egitea funtsezkoa da azken kontsumitzaileengana iristeko eta merkatuan presentzia maximizatzeko. Lagundu diezagukeen enpresa bat Zalando izan daiteke, oso ezaguna den eta askok ezagutzen duten online modako plataforma bat. Gure presentzia globala nabarmentzen edo handitzen lagunduko digu eta, kalitate handiko kirol modako produktuen bila dabilten



kontsumitzaileengana iristen lagunduko digu. Hala ere, publizitatea egingo dugu sare sozialetan, telebistan, etab. Jende gehiago erakartzeko, eta hori gutxi balitz, ere webgune bat izango dugu, edozeinek sartu edo erabili ahalko duena.

Azkenik, oso garrantzitsua da akordio argiak izatea egingo ditugun pertsona eta enprekin. Akordio horiek lagungarriak dira denok zer egin behar dugun jakiteko, erantzulea eta informazio konfidentziala bezalako gauzekin arazoak saihesten ere laguntzen duelako. Akordio argiak ditugunez, guren negozioak hobeto eta eraginkorrago funtziona dezan lortu dezakegu, lankidetzan modu eraginkorrean arituz.